

## **Lehendakaritza Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2015 FORU DEKRETUA, ekainaren 9koa, zeinaren bidez onartzen baitira Bizkaiko toki-korporazioetako kideek ordainsariengatik eta bertaratzengatik jaso dezaketenaren gehieneko mugak.**

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko bigarren xedapen gehigarriak Bizkaiko Lurralde Historikoko foru organoei eskumena aitortzen die toki-korporazioetako kideek ordainsariengatik eta bertaratzengatik jaso dezaketenaren gehieneko mugak ezartzeko.

EUDELen Batzorde Eragileak, 2014ko ekainaren 19an eginko bileran, Bizkaiko toki-korporazioetako kideek ordainsariengatik eta bertaratzengatik jaso dezaketenaren gehieneko mugak ezartzeko proposamena onetsi zituen; orain, proposamen hori erabaki bihurtzen da dekretu honen bidez.

Aurrekoaren ondorioz, Lehendakaritza Sailak proposatuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 14ko 15/2012 Foru Dekretuan emandako ahalmenak erabilia (foru dekretu horren bidez, sail horren egitura organikoari buruzko araudia onartzen da), Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2015eko ekainaren ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

### **Artikulu bakarra**

1. Bizkaiko toki-korporazioetako kideek ordainsariengatik eta bertaratzengatik jaso dezaketenaren gehieneko muga toki-korporazioaren ezaugarrien eta hango biztanleriaren arabera zehaztuko da —horretarako ez dira kontuan hartuko zerbitzu berezieta-

## **Departamento de Presidencia**

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 81/2015, de 9 de junio, por el que se aprueban los límites máximos de retribuciones y asistencias de los miembros de las corporaciones locales de Bizkaia.**

La Disposición Adicional 2.<sup>a</sup> de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, reconoce la competencia de los órganos forales del Territorio Histórico de Bizkaia para la determinación de los límites máximos totales del conjunto de retribuciones y asistencias de los miembros de las corporaciones locales.

La Comisión Ejecutiva de EUDEL, en reunión celebrada el día 19 de junio de 2014 aprobó la propuesta de fijación de límites máximos de retribuciones y asistencias de los miembros de las corporaciones locales de Bizkaia que mediante este Decreto se eleva a acuerdo.

En virtud de lo expuesto, a propuesta del Departamento de Presidencia, de acuerdo con la competencia atribuida por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 15/2012, de 14 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, en su reunión celebrada el de junio de 2015,

DISPONGO:

### **Artículo único**

1. El límite máximo total que pueden percibir los miembros de las Corporaciones Locales de Bizkaia por todos los conceptos retributivos y asistencias, excluidos los trienios a los que en su caso tengan derecho aquellos funcionarios de carrera que se encuen-

ko egoeran dauden karrerako funtzionarioei dagozkien hirurtekoak—, eta taula honetan jasotakoari doituako zaio:

Biztanleak	Erreferentzia
100.000 baino gehiago (hiriburua alde batera utzita)	Eusko Jaurlaritzako sailburua -%5
50.001etik 100.000ra	Eusko Jaurlaritzako sailburua -%10
20.001etik 50.000ra	Eusko Jaurlaritzako sailburua -%15
10.001etik 20.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria
5.001etik 10.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria -%10
2.001etik 5.000ra	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria -%15
2.000raino	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria -%25

2. Lurralde Historikoko kapitalari ezarri ahal zaion gehieneko muga 90.000 euro izango da, hirurtekoak kontuan hartu gabe, eta Eusko Jaurlaritzako sailburu karguari dagokion ordainketa eguneratzen denaren arabera eguneratuko da berau ere.

3. Dedikazio partzialei ezarri ahal zaizkien gehieneko mugak aurreko taulatik toki erakundeak erabakitako dedikazio-portzentajeari ezarri behar zaizkionak izango dira.

4. Aurreko 1 atalean ezarritako mugak haiei dagozkien Eusko Jaurlaritzako karguen ordainketak eguneratzen diren modu berean eguneratuko dira.

5. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2015eko ekainaren 9an.

Lehendakaritzako foru diputatua,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

Ahaldun Nagusia,  
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

tren en situación de servicios especiales, atendiendo entre otros criterios a la naturaleza de la corporación local y a su población se ajustará a la siguiente tabla:

Habitantes	Referencia
Más 100.000 (excluida capital)	Consejero/a Gobierno Vasco -5%
De 50.001 hasta 100.000	Consejero/a Gobierno Vasco -10%
De 20.001 hasta 50.000	Consejero/a Gobierno Vasco -15%
De 10.001 hasta 20.000	Director/a Gobierno Vasco
De 5.001 hasta 10.000	Director/a Gobierno Vasco -10%
De 2.001 hasta 5.000	Director/a Gobierno Vasco -15%
Hasta 2.000	Director/a Gobierno Vasco -25%

2. El límite máximo aplicable a la capital del Territorio Histórico será, excluidos los trienios, de 90.000 euros, y se actualizará conforme a como lo haga la retribución correspondiente al cargo de Consejero/a del Gobierno Vasco.

3. Los límites máximos aplicables a las dedicaciones parciales serán los que resulten de aplicar los correspondientes de la tabla anterior al porcentaje de dedicación acordado por la entidad local.

4. Los límites establecidos en el apartado 1 anterior, se actualizarán de acuerdo a como lo hagan las retribuciones de los cargos del Gobierno Vasco a los que están referenciadas.

5. El presente decreto foral entra en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 9 de junio de 2015.

El Diputado General,  
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

El diputado foral de Presidencia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ